

Batetik, lurraldeko erliebe maldatsua dela, eta bestetik, ustialekuen eta sailen tamaina txikia kontuan izanik, oso baserritar gutxi dira beraien makinaria propioa erosteko egin behar den inbertsioari aurre egin diezaioketenak. Hori dela eta, ezinbestekoak dira baserritarrei makinaria zerbitzu hauek eskainiko dizkieten partikular, elkarte, kooperatiba eta enpresak izatea eta hauen bidezko zerbitzuak bultzatzea. Gipuzkoako Foru Aldunditik makinaria zerbitzu hauek laguntze aldera, urteroko diru-laguntza poltsa bat kudeatzen du Landaolak.

Eskualdeko landa garapen elkarteen bidez, Belarmendiren bidez edota norbanako baserritarren bidez eskaintzen dira diruz lagundutako zerbitzu hauek eta ICM diru-laguntza onartua duten baserritarrek izango dute laguntzarako eskubidea.

Honako zerbitzu hauek dira laguntza jaso dezaketanak:

- Belar lanak: ebaki, bildu, giratu, rotoenpakatu, enzitu, ereite zuzena.
- Artoa eta negu belarra: lurra prestatu, erein, jaso, pikatu, remolke zerbitzua.